

## IKUSPEGI BAROMETROA 2009

### Atzerriko immigrazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak


Begirada hau Ikuspegi egin duen hirugarren Barometroan oinarrituta dago. Honi azaroan aurkeztuko dugun bigarren batek jarraituko dio. Begirada honetan aztertzen da: immigrazioa arazotzat, kultur-harreman erak, immigrazioaren kopuruaren inguruko pertzepzioa eta bertako biztanleriaren arabera eduki beharko lituzketen eskubi-deen inguruko iritziak. 2009an hainbat jarraikortasun eta zenbait haustura aurkitu dugu eta, batez ere, euskal biztanleria eskubideak modu murriztaileagoan eskaintzearen aldekoa dela.

#### Fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1.200 (NC = 95 %, sigma = 1,96, eta Akatsa = +/- 2,82%)
- Inkestak lurraldeka: Araba 400 (+/-4,9%), Gipuzkoa 400 (+/-4,9%) eta Bizkaia 400 (+/-4,9%)
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorako pertsoneri
- Laginketa geruzatua habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren arabera kuotekin
- Etxeen aukeraketa: ausazko bideen sistema
- 61 laginketa-puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)
- Laginaren haztapena (eragile zuzentzaileak) lurraldeka, habitat-neurri, adin eta sexuaren arabera, EAEko datuak azaltzean

### 1. Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)




• Euskadiko herritarrek ez dute immigrazioa arazo moduan bizi. % 2,7k baino ez du aipatzen modu espontaneoan Euskadiko arazo nagusi gisa.

• Hiru erantzun espontaneoen multzoan Euskadiko herritarren % 12,9k baino ez du aipatzen arazo gisa, eta hori baino askoz aurrerago daude langabezia (% 82,2), ETA

(%38,7), etxebizitza (% 29,2), izaera ekonomikoko arazoak (% 28,5) eta herritarren segurtasun-eza (% 14,3).


• Agerikoa denez, krisi ekonomikoak aipatutako gainerako arazo guztiak desitxuratzen ditu. Immigrazioa arazotzat hartzeari dagokionez, datua 2008koaren gainetik dago (% 7,2) eta 2007koaren azpitik (% 15,0).

Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?




- Arazo-zerrenda bat eman eta bertatik hiru aukeratzeko eskatzen zaienean, immigrazioak gora egiten du % 13,5era eta bere garrantzi erlatiboa areagotu egiten da, beste arazoekin bezala, baina gutxiago.
- Langabezia hain arazo larritzat hartzeak txikitu egiten du aurreko urteetan etxebizitzari edo arazo ekonomikoei ematen zitzaizen garrantzia ere.
- % 1,1ak baino ez du aipatzen lehenengo aukeratzat, eta horren aurretik daude langabezia (%61,6) edo ETA (% 11).

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Arazo gisa duen garrantzia are gehiago murrizten da ea arazo pertsonala den, eta ez Euskadikoa, galdetzen zaienean.
- Hiru erantzunetako aipamen guztiak kontuan izanda, Euskadiko herritarren % 6,4k baino ez dio beretzat immigrazioa arazo pertsonala dela, 2008an baino % 1,5 gehiago.
- Modu espontaneoan, immigrazioa Euskadiko herritarren % 0,9entzat baino ez da lehenengo arazoa.
- Maila pertsonalean aipamen gehien jasotzen dituen arazoa izaera ekonomikoko gorabeherekin lotutakoa da (% 37,5).


Konparazioa 2007 eta 2008ko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak? (Gehenez hiru erantzun: erantzun espontaneoak)



- Immigrazioa arazotzat hartzearen zifrak erlatiboki parekoak dira 2007koekin alderatuta, baina igo egin dira 2008ko datuekiko.
- Hala ere, 2008tik igo da immigrazioa arazo pertsonal moduan, % 4,9tik % 6,4ra.

## 2. Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan diezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



Hasiera batean, euskal herritarrak kultura-aniztasunaren aldekoak dira:

- % 50,1ak dio ona dela kultura, etnia eta erlijio desberdinek osatzea gizartea, pasadan urtean baino 5 puntu gutxiago.
- % 64,7k uste du etorkinen erlijio-praktikak ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, hain zuzen, 2008ko datuen parekoa eta 2007an baino 11 puntu gehiago.
- Euskadiko herritarren % 56,4k ez du ondo ikusten atzerritarrek euren kultura eta ohiturak baztertu behar izatea guztiz onartuak izateko; 2008ko barometroan baino 3 puntu gutxiago eta 2007an baino 8 gutxiago.


Orain zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



Halaber, euskal herritarrek elementu kultural komunak izatearen alde daude, baina 2008an baino indar txikiagoz:

- Hizkuntza bakarra hitz egitearen aldekoak gehiago dira (% 39,3) kontrakoak baino (% 29,6). Hala ere, aldekoak 10 puntu gutxiago dira eta kontrakoak 2007ko (+% 1,6) eta 2008ko (+% 4,5) kopuruetatik gora daude.
- 2008an gizartea erdiz erdi banatzen zen tradizio eta ohitura berdinak izatearen aldekoen eta kontrakoen artean (% 39), baina 2009an aukera horren kontrakoak gutxitu egin dira (-% 7,2).

Euskadin bizikidetzeta hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:




Edozein kasutan, hemengo ohiturak eta tradizioak dira osagai bateragarrietarako jarraitu beharreko eredia, aurreko urteetan baino areago. Horrela, Euskadin elkarbizitza hobea lortzeko,

- % 56k uste du bertakoak ez direla ahaleginu behar pretsona etorkinen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzen eta horietara egokitzen; aurreko urteko portzentaje berdintsua.
- % 65,3k dio erabateko onarpenerako beharrezkoa dela bertako legediarekiko gatazkatsuak diren erlijioaren edo kulturaren alderdiei uko egitea, 2008ko kopuru berdintsua eta ia 2007an baino 10 puntu gehiago.
- % 89,7en iritziz, bertakoek ez diete uko egin behar euren ohitura eta tradizioei; 2007an baino 6 puntu gehiago.
- % 85,4k uste du pertsona etorkinak bertakoen ohiturak eta tradizioak berenganatzen saiatu behar direla; 2008an baino 6 puntu gehiago eta 2007an baino 2 puntu eta erdi gehiago.

### 3. Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza bere-tan izan behar lituzkete eskubide horiek?




Eskubideak aipatu eta gero, euskal herritarrek uste dute:

- Gutxi gora behera 2007an bezala baina 2008an baino gutxiago, atzerriko herritar guztiak osasun-arretarako (-% 4,5) eta euren seme-alaben heziketarako eskubidea (-% 5,2) izatearen aldekoak dira.
- Ez-ohiko edo larriune garaiei dagozkien zerbitzu eta eskubideetan (gizarte-laguntzak eta babes ofizialeko etxebizitzak) euskal herritarrek aurreko urteetan baino eskuzabalagoak dira.

### 4. Euskara eta euskal-nortasunean eragina

Esan diezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:




Euskal herritarrek ez dute uste beren euskal nortasuna eta euskara arriskuan daudenik atzerriko immigranteak etortzeagatik:

- % 67,7k ez du uste euskal nortasunaren galeran lagunduko duenik.
- % 60,4k ez du uste abertzaletasunaren nahiak etengo duenik. Ia 2008an baino 8 puntu gutxiago.
- % 66,6k dio ez duela etengo euskararen garapen orokorra.
- % 63k dio ez duela euskararen erabilera murriztuko, gehienek euskaraz hitz egiten duen lekuetan.
- Orokorrean aurreko urteetako iritzi-kopuru antzekoak daude, 2008koak baino zehatzagoak eta kasu guztietan 2007koak baino handiagoak.

## 5. Immigrante kopuruaren pertzepzioa

Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik, zure ustez, gutxi gorabehera zenbat jaiotako atzerriar, Espainiatik kanpo?




Euskal herritarrek gehiegizko pertzepzioa dute atzerriar biztanleriari buruz:

- Euskadiko herritarrek uste dute Euskadiko gizartearen % 17,2 atzerriarra dela.
- 2009ko urtarrilean erroldatutakoaren portzentajea % 6,1ekoa da.
- Euskadiko herritarren % 79,8en ustez atzerriarren kopurua gehiegizkoa edo nahikoa da; horretan ez dago 2007 eta 2008koarekiko alde nabarmenik.
- Erroldatutako atzerriarren portzentajea eman diegunean, gehiegi edo nahikoa direla uste dutenen portzentajea % 60,9ra jaitsi da, 2007 eta 2008an galdera horren inguruan jasotako iritziaeren portzentaje berdina gutxi gorabehera.

## 6. Eragina ekonomian


Esan diezadazu honako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



- 2007 eta 2008an bezala, herritarrek ez dute argi esaten immigrazioak Euskadiko gizartearengan eragin onak ala txarrak dauzkan, hau da, 0tik 10erako eskalan, batez bestekoa 4,95koa da (4,89koa zen 2008an eta 5,00koa 2007an).
- Aurreko urteetan bezala, baina indar eta onberatasun gutxiagoz, herritarrek onartzen dute atzerriko populazioak, oro har, ekonomia hobeto joan dadin (-% 7,6) eta bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztela (-% 9), baina ondorio txarrak ere baditu: soldaten mailan eragiten du (+% 6,5), bai eta gizarteko sektorerik ahulenetan ere (+% 10,2).
- Ondorioz, ez da onartzen atzerriarren lanaren onurak eta eragingarritasuna hain agerikoak izatea, eta aldi berean ondorio kaltegarriak handiagoak dira.

## 7. Eragin sozialak

Esaniezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



Euskal herritarrek, oraindik ere, badituzte zenbait estereotipo faltsu eta aurreritzi negatibo atzerriko etorkinei buruz:

- % 68,5ak uste du gizarte-babeseko sistema gehiegi aprobetxatzen dutela; 2008an baino ia bost puntu gehiago eta 2007an baino zortzi gehiago.
- Eta % 51,2k dio herritarren segurtasunarengan eragin kaltegarria daukala; 2008an baino % 6,5 gehiago.
- % 67,2k ez du uste jasotzen dutena baino gehiago ordaintzen dutenik. % 3,5ak bakarrik uste du kontrakoa. Iritzi hori gizartean guztiz sartuta dago, errealitatearekin bat egiten ez badu ere.


## 8. Immigrazio politika

Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokieran atzerritar langileen kasurako?



- Euskadiko herritarren % 10,4, aurreko urteetan baino apur bat gehiago, ados dago etorkinak sartzeari legezko inolako trabarik ez jartzearekin, eta % 3,9 baliabide guztien bidez eragoztearen aldekoa da.
- % 83,2 lan-kontratua izanez gero sartzten uztearen aldekoa da. Edonola ere, beste inkesta eta ikerketa askotan ikusi denaren haritik, gizartearen zati handi batek lan-kontratua berme nahikotzat hartzen oraindik, ziurtasuna ematen duelako eta susmoak saihesten dituelako.

Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?



- Oro har, euskal gizarteak lan-egoera eta langile atzeritarren onarpena uztartzen ditu, eta lanean diharduten pertsonen egoera erregularizatzearen aldekoa da; lanean ari direnei hemen bizitzeko baimena ematearen aldekoa, alegia.
- Lotura hori gero eta handiagoa da: 2008an % 45,8k bakarrik lotzen zuen erregularizazioa lanarekin; aurten, 10 puntu igo da kopuru hori (% 55,8).
- Gutxiengo batek soilik ditu jarrera gogorrak: % 9,7k adierazi du egoera irregularrean dauden etorkin guztiak bidali behar direla.

## Ondorioak:

1. Euskadiko herritarrek ez dute ikusten immigrazioa arazo gisa, ez Euskadiko arazo moduan ezta gutxiago ere arazo pertsonal legez.
2. Euskadiko herritarrak kultur aniztasunaren aldekoak dira, baina asimilazioan oinarritutako integrazioa proposatzen dute iazko eta 2007ko barometroetan baino indar handiagoz.
3. Euskadiko herritarrak osasun-arreta eta hezkuntza-eskubideak atzerriko pertsona orori aitortzearen aldekoak dira (2008an baino gutxiago); baina beste zerbitzu eta eskubide jakin batzuk erregularizatutako herritarrei mugatzen diete.
4. Euskal herritarrek, aurreko urteetan bezala, ez dute ez euskal nortasuna ezta euskara ere mehatxatuta sentitzen atzerriko pertsona etorkinak etortzearen.
5. Euskadiko herritarren erdiek baino gehiagok (% 60 inguru) uste du, 2007eta 2008an bezala, etorkin gehiegi edo nahiko daudela, baita benetako portzentajea jakin eta gero ere.
6. Euskal herritarrek aurreko urteetan baino onbertasun gutxiagoz epaitzen dute immigrazioaren eragingarritasun ekonomikoa, eta ondorio negatiboaren ehunekoa areagotu egin da.
7. Euskadiko herritarrek oraindik estereotipo faltsuak eta aurreritzi kaltegarriak dauzkate atzerriko immigrazioaren aurrean. Estereotipo eta aurreritzi horiek neurri batean autonomoak direla ematen du benetako gertaeren aldean.
8. Lan-kontratua izanez gero atzerriko pertsona etorkinei sartzeko aukeraren aldekoa da Euskadiko herritarren % 83,2.



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:  
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi maila-  
 gua eskeintzen ditu.  
 - **Informazio estatistikoa.**

**Gurekin harremanetan jartzeko:**  
 Tf.: 94 601 82 75  
 Fax: 94 402 35 40  
 e-mail: [info@ikuspegi.org](mailto:info@ikuspegi.org)

**Postaz eta pertsonalki** helbide honetan aurki gaitzakezu:  
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia